

Aviva Doron, emakume olerkari judatarra, Tel-Aviv'eko Ikastetxe Nagusian irakasle dena. Naparroa'n izan genuen joan den urteko udaberrian.

Onera etorri zen gure Erdi Aroko napar judutar olerkari batzuen sorlekua ezagutzera. Guk baiño obeki dakite judutarrek beren Jehuda Halevi –David ondoren judutar olerkaririk nagusiena- Naparroa'ko Muskaria'n (Tudela'n) jaio zela.

Iruña'n napar olerkariekin aurketu zen Aviva Doron andrea, eta bera bai gure euskaraz arduratu ere. Aren omenez eta berak egindako lantxo au euskaratu du – Erronkari'ko mintzoz- Estornes Lasa Joxe'k, “erri ta ikurrin guzienganako bidean”.

NOLA EBILTAN DA ODEI-ARTEAN?

Nola ebiltan da odei artean?

AVIVA DORON

Baratx,
emaro-emaro eta aizinaz;
odeiak ikutan dra beilaki.

Odei atsartan eta amets
goartan da,
begiztaturuk.

Odei artean ebiltan da
argi edanik.



(JEL'ek uskaratu)